

BATZORDE ERAGILEAREN KUDEAKETA TXOSTENA

XII. KONGRESU KONFEDERALA

AURKKIBIDEA

I. Sarrera	4
Erasoaldi neoliberala lan-harremanak arautzearen eta gizarte-ereduaren aurka	4
Gure hiru lehentasun estrategikoak: negoiazio kolektiboa, gizarte eredia eta burujabetza	5
Boterearen kontrako sindikalismoa finkatzeko pentsamendua eta antolakuntza	6
Bestelako lanak proiektu integral eta autonomia garatzeko	7
II. Negoiazio kolektiboa: gero eta lur sendoagoa	7
III. Gizarte eredia: bada aukera beste Euskal Herri baterako	10
IV. Burujabetzaren aldeko indarren metaketak ez du alternatibarik	12
V. Prestakuntza eta argitalpenak: konpromiso militantearen nahitaezko osagaia	15
VI. Antolakuntza: bukatu gabeko eginkizuna oinarriko antolakundeak dinamizatzeko	16
VII. Konpromisoa, lehentasuna eta kudeaketa eskatzen duten esku-hartze eremuak	17
VIII. Zerbitzu juridikoak eta gabineteak	19
IX. Aliantzak eta nazioarteko lankidetzak	19
X. Ordezkaritza sindikal sendoa eta finkatua	20
XI. Afiliazioak hazten jarraitzen du	20
XII. Ondorio moduan: «ez ikusi, ez ikasi»	21

I. SARRERA

Neoliberalismoak jarraitu du gidatzen munduko ekonomia amaitzeaz den laurtekoan, modu hegemonikoan gidatu ere. Hazkunde horrekin batera, gainera, desorekak eta desberdintasunak areagotu egin dira, bai ekonomia aldetik gutxiago garatutako herrialdeetan, bai herrialde aberatsuetan ere. Azken horietan, laneko errenten atzerakada etengabea gertatu da aberastasunean. Kapitalaren aldetik «eskala handiko lapurreta» izan dela esatea ez da hitzak puztea.

Garrantzitsua da bereiztea zein mekanismo politikok, ekonomikok eta sozialek eragin duten egoera hau. Mekanismo horiek ez dira, inolaz ere, «berezkoak»; aitzitik, gutxiengo baten mugarik gabeko gutizia lehenesten dute.

Plusbaliak mugarik eta kontrolrik gabe bereganatu dituzte ziklo luze batean; honen ostean izan duten jokabideak etxebizitza-sektoreko burbuila lehertzea ekarri du, eta ondoren 1929tik hona ikusi gabeko finantza-sistema osoaren krisia, ekonomiaren erabateko eragina duena.

Merkatuaren aitzindari erradikalek, ohi duten zintismoaz, orain botere publikoei parentesi bat irekitzea eskatzen diete, eta esku har dezatela, beren galerak sozializatzeko, eta bost axola zaizkie garai oparoetan onurarik izan ez duten gizarteko sektoreek paira ditzaketen «kalte kolateralak», nahiz eta «erreskate operazio» honen kostu handiena hauek ordainduko duten.

Soldadak diziplinatzeko berriro hasi dira zalantza ekonomiko eta sozialak baliatzen, errezesioaren mamua eta langabeziaren gorakada, oso hondatuta dagoen lan mundu baten baitan, gainera. Guztiz aldrebesa den arren, etekinen joera espekulatiboak ekarri dituen gehiegikeriak konpontzeko errezeta bitxia ezarri nahi dute, lan-errenten erosteko ahalmena murriztea.

Erasoaldi neoliberalaren lan-harremanak arautzearen eta gizarte-ereduaren aurka

Ikuspegi sindikaletik, nabarmentzekoa da erasoaldi neoliberalaren lan-harremanaren ereduaren desegitea, ez du beste helbururik erasoaldi horrek, hau da, langilearen eskubideen aitortutako oinarriak eta arauak berraztertzea eta babes soziala murriztea.

Azpimarratzeko modukoa da 2000. urtean Lisboan hitzartutako Estrategiaren azterna. Estrategiaren gida-lerroak zorrotz irakurtzea aski da, eufemismo zurien atzean, hau da, sakon sakonean, estrategia horren asmo bakarra zein den salatzen. Europako gizarte ereduaren arestian aipatutako moduan berraztertzea, alegia.

Azpi-kontratazioa, ABLEak, lan-araudien moldatzea... horien guztien eraginez lan-baldintzak gero eta arautu gabeagoak eta indibidualizatuagoak dira. Lanean hasia eta lanari uztea gero eta baldintza okerragoetan egiten da, enpresaren arbitrariotasunaren itzalean edo mendearen erabat; izan ere, inor lanetik kanporatzea jada ez baita «egonkortasunaren berme». Langile bat kanporatzea ez da garesti ateratzen, eta kanporatze-kopurua kontratu mugagabe eta behin-behinekoen pareira iristeko bidean da.

Proposamen eta goiburu abstraktuak, hala nola, «enpleagarritasuna» delakoa, ari dira indar hartzen eta lanaren gaineko berme eraginkorrak ordezkatzeko. Prestakuntza eta estaldura sozialak ere aipatzen dira, baina ez dira ez neurtuak ez arautuak geratzen. Era berean, babes sozialaren maila publikoak beti beherantz berrikusten dira, pentsioetatik hasita.

«Koordinazio irekiko metodoak» deritzan bidez deszentralizatzen dute kudeaketa, hau da, EBren zuzendaritzarik eta araudirik gabe. Finean, metodo horiek ezartzen dute bidea, aipatutako lan-harremanaren ereduaren desegiteko.

Paradoxa badirudi ere, joera horiek guztiak modernitatearen eta lehiakortasunaren izenean gertatzen dira eta «elkarriketa soziala» delakoaren bidez legitimatu nahi dira. Uste dugu elkarriketa sozialak tresna osagarria izan beharko lukeela hitzarmenak ahalbidetzeko, enpresatik bertatik hasita. Hitzarmen horiek oreka handiagoa ekarri beharko lukete lan baldintzetan eta baldintza sozialetan, langileek ekoizpenari eta ekonomiari egiten dioten ekarpenak hala eskatzen baitu. Elkarriketa soziala baldintza horien baitan emango balitz, ez litzateke ekintza sindikala agortuko; hain zuzen, ekintza sindikalak izan behar du langileen lan baldintzak eta baldintza sozialak babes-teko adierazpide kolektiboa eta antolatua.

ELAren iritziz, ez da onargarria elkarriketa soziala, bere horretan, helburu gisa jartzea, ekintza sindikalaren alternatiba gisa, eta ekintza sindikal horren aldarrikapenezko eta mugimenduzko edukia hustea. Gure ikuspegitik eta esperientziatik mintzo gara, baina konturatzen gara jarduteko modu honek baduela hedapen zabalagoa.

Botere politiko eta botere ekonomikoaren artean inoiz ez bezalako sintonia egon da azken aldian eta, hori baliatuz, elkarriketa soziala beste modu batera definitu dute. Asmoa agerikoa da: mugimendu sindikala lan-merkatuaren muintetik baztertzea, langileen behar eta nahietatik aldentzea. Horretarako, beste era bateko eginkizunetan «entretzenitza» dute mugimendu sindikala, estrategia neoliberalaren mesedetan.

Jarduera sindikala «kanpora ateratzeko» eta gune berri eta nagusiki birtual horretara egokitzeko, botere politikoak eta ekonomikoak elkarriketa eta adostasuna goraiatzen dute hitzetik hortzera, nolabaiteko protagonismoa eta onarpen publikoa ematen diote mundu sindikalari eta beharrezko finantzazioa ematen diote hainbat gairen kudeaketa medio, hala nola, lana, prestakuntza, immigrazioa...

Azken batean, helburua da aldarrikapenezko sindikalismoa joko kanpo uztea, noiz eta inoiz baino beharrezkoagoa denean; izan ere, gaur egun inoiz baino desorekatuago daude indarrak, eta desberdintasunak eta bazterketak areagotzen ari dira.

Egoera honetan, beraz, beste erronka batzuei ere egin behar die aurre aldarrikapenezko praxiak. Eta ez gara ari bata bestearen atzetik izan diren lan erreformek, edota kontrol judizial eta administratibo gutxiago egoteak (ikuskapenak barne) sortutako testuinguruaz soilik. Estrategia neoliberalak, lan baldintzak kaskartzeko dinamika horretan, ederra egin du azkena ere: gobernu eta patronalaren aldetik joko-arau oinarritzkoenak apurtzeko exijitu du –hitzarmenak ixteko gehiengoak errespetatzea, adibidez– eta hori gutxi balitz bezala, greba eskubiderako dauden mugak ere gaineratu behar dira.

Azken batean, 1990eko hamarkadaren aurreko eredu ekonomiko eta soziala bereiztu zuten babes-mekanismoak eta filosofia hautsi dutenek elkarriketa sozialaren beren ikusmoldea ezarri nahi dute orain, eta aldarrikapenezko sindikalismoa esku hartzeko espazio eta tresnarik gabe utzi nahi dute.

Hala, adibidez gure kasuan, zuzenean gobernuen mende dauden erakunde administratiboak era-biltzen dira, –eskumenaren epaimahaiak, esaterako– merkatuaren izenean askatasun sindikala higitzeko.

Gure hiru lehentasun estrategikoak:
negoziazio kolektiboa, gizarte eredua eta burujabetza

Langileentzat panorama kezkagarria dugu aurrean eta egoera horretan ez da samurra erakunde sindikalen lanak emaitzarik ematea, ezta emaitza apalik ere. Inboluzio edo atzerakada antisozial horrek gehien kaltetutako taldeen eta pertsonen artean erreferentzia baikorra lortzeko moduko emaitzarik, alegia.

Erreferentzialtasun hori bilatzea izan da gure lehentasuna kongresuen arteko aurreko aldi honetan: gure eginahal militante osoa eta bitarteko guztiak jartzen saiatu gara errealitateari eta langileen arazo zehatzei estu lotutako eredu sindikala sendotzeko eta finkatzeko.

Aztergai dugun aldian, negoziazio kolektiboak bizitasun handia izan du, gure ekimenengatik eta emaitzengatik. Partzialak izan arren, akuilu ona dira emaitza horiek, batez ere soldaten eta lan baldintzen bazterketarekin lotutako gaietan lortutako emaitzak.

Gizarte ereduarekin loturiko gaietan, mugimendu nabarmena eragin duten kanpainak egin ditugu; auzitan jarri dugu administrazioen politika, ez baitira ulertzekoak politika horren bereizgarriak: gutxi bildu, gastu sozial gutxi egin eta –paradoxa– superabit publikoa izan.

Askapen nazionalerako prozesuari dagokionez, egoera ez da izan eta ez da batere itxaropentsua ikuspegi abertzaleetik: beste behin porrot egin du negoziazio prozesuak, ETak ekintza armatura itzultzea erabaki du eta Estatuak zorrotzu egin du errepresio bidea.

Nazionalismo instituzionalak gero eta kutsu «neoestatutista» garbiagoa eman dio autogobernua-ren kudeaketari, eta aurrera egiteko inongo anbiziorik ez dauka, ez errebindikazioei, ezta osatzeko dagoen eskumen-markoa garatzeari dagokienez ere. Asmoa berriro status quo mantentzea da, eta lehenetsi egiten du elite ekonomikoekin duen aliantzaitsu-itsua. Paradigma berria, «herri-gintza negozioren mundutik abiatuta».

ELak burujabetzaren aldeko aukera zibil eta demokratikoa defendatzen jarraitu du, nahiz eta egoerak asko lagundu ez; izan ere, gizartean eta politikan indar abertzaleak batzeko proposamenik ez da batere egon. Aitzitik, «zeharkakotasuna» deritzanaren ustezko abantailak baliatu nahi izan dira estatu eredu gaunditzeko, bai eta Espainiako indar politiko eta sozialek defendatutako marko konstituzionalaren irakurketa gaunditzeko ere.

Eztabaida autodeterminazioaren alde ekarriko duten indar-oreka behar du prozesu nazionalak, uste horretan gaude. Indar-oreka, betiere, aurrez aurreko demokratikoan. Legitimoa ez ezik, haxe da aukera bakarra, eta gutxienezkoen gaineko akordioak dira horretarako beharrezko, helburu eta agenda partekatuekin.

Negoziazio kolektiboaren bultzada, gizarte eredu alternatibo baten aldeko apustu irmoa eta burujabetza-prozesu baten aldeko konpromisoa, hiru zutabe horien gainean oinarritu da gure lana lau urteotan. Burujabetza-prozesuaren aldeko konpromiso horretan mundu sindikalak lankidetzarako edukiak ekarri ditu.

Eginkizun estrategiko hauetako bakoitzak ematen dio zentzua gure konpromiso kolektiboari, eta merezi du arreta berezia txosten honetan.

Boterearen kontrako sindikalismoa finkatzeko pentsamendua eta antolakuntza

Pentsamendu propioa, kritikoa eta alternatiboa garatzeko kezka eta ardura izan dugu laurteko honetan eta pentsamendu hori gure gune militanteetara zabaltzekoa. Prestakuntzak eta argitalpenek lagundu dute zeregin horretan, eta, hori guztia osatzeko, informazioa ere maiztasun jakinez iritsi zaie afiliatu guztiei.

Ez ditugu alde batera laga antolakuntzako lanak; gure eredu sindikal integral eta sektore-artekoan, garrantzitsua da oso antolakuntza, pauso berriak emateko: oinarriko gure antolakundeak zabaltzeko, sendotasun eta ekimen handiagoa emateko; hainbat helburu bereizteko, hala nola, afiliazioa, negoziazio kolektiboa eta taldeak berritzea; gure denbora modu eraginkorragoan antolatzeke aukera emango diguten lan-metodoak saiatzeko.

Bestelako lanak proiektu integral eta autonomoa garatzeko

Bestalde, badira hainbat alor eta zeregin txosten honetan arreta eta ebaluazioa eskatzen dutenak: euskara, gazteak, emakumeak, immigrazioa, lan-osasuna eta ingurumena, esate baterako.

Zerbitzuek eta bulegoek osatzen dute gure eredu konfederala. Laguntza eta babesa ematen diete antolakunde guztiei. Hori dela-eta, beharrezkoa da txostenean haien aipamena ere egitea.

Klaseko sindikalismo batek ezin du alde batera utzi dimentsio internazionalista: nazioartean lanean jarraitu dugu aldi honetan ere, eztabaidetan parte hartuz, posizioak finkatuz, konpromisoak gure gain hartuz, alde biko harremanak eta multilateralak sendotuz...

Sarrera gisa ere aipatu beharra dago gure afiliazioa hazi egin dela eta ordezkaritza maila finkatu; lorpen hauek azpimarratzen dute, zailtasunak gorabehera, baditugula aukerak sindikalismo errebindikatzailerak, kontrabotere denak, aurrera egin dezan, erakundeen eta patronalaren aldetik gero eta egoera etsaituagoa izan arren.

Argi dago gakoa lortu dugun autonomian datzala –bai finantzei, bai ildo politikoari dagokionez–, eta horrek tentsio militante kolektiboa mantentzeko aukera ematen digu, lan munduaren, gizartearen eta politikaren aldaketa lortzeko borrokan.

II. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA: GERO ETA LUR SENDOAGOA

Gizarte eredu haustea eta lan-baldintzen kaskartzeak berekin ekarri du, ezinbestean, negoziazio kolektiboaren krisi orokorragoa: edukietan, alorretan, kudeaketa prozeduretan... Gai honek, gainera, herrialde bakoitzaren egiturari eta egintzei eragiten die.

Negoiazio kolektiboa, beraz, funtsezko erronka da baldintza kaskarretan diharduten langile askorentzat, ezpada gehienentzat. Kalitate baxuko enpleguetan ari direnentzat eta kontratuan baldintza diskriminatzailerak bidez baztertutakoentzat, hain zuzen. Hauxe da gaur egungo erreferentzia-markoa; egoera malkartsua da helburu zehatzen inguruan lan antolatua egiteko; ekintza sindikal kolektiboa bideratuko duten helburuen inguruan, hain zuzen.

Baina guretzat ez dago beste biderik: edo negoziazio kolektiboa berrindartzen da –jarduteko beste bide bat bilatu beharko da, edukiekin, alorrekin, tresnekin eta dinamikekin– edo, gainera, koan, sindikalismoak galdu egingo du bere oinarri nagusia.

Ekintza sindikalik gabe ez dago sindikalismorik; afiliazioa eta militantzia ez dago berritzerik; ez dago aldaketa laboral, sozial eta politikorako zerumugarik... non eta asmoa ez den lan-baldintza kaskarren aldi luzeagoa edo laburragoa kudeatzea, arazoa behin-behinekoa balitz bezala.

Bistan da ez gaudela epe motzera konpondu daitekeen betekizun baten aurrean. Erronka honek eskatzen du saioak egitea; hala, saio horiek bata bestearen ondotik eginez, etor daitezke beste erreferentzia batzuk, gaur egungo hutsuneak bete ahal izateko eta nagikeriak gainditzeko, eta, modu horretara, negoziazio kolektiboa indarberritzeko.

Prozesu hori hautatu genuen bere garaian, eta horretan ari gara lanean. Ez daukagu behin betiko balantzerik –izan ere, onartu beharrean gaude negoziazio kolektiboaren egitura berria egiteko dagoela– baina eskarmentu zorrotz eta zaila oinarri dugula, baietsi dezakegu negoziazioaren gure ereduak zimendu sendoa duela jada.

Aldarrikapenezko edukien aldetik, bazterketaren aurkako borroka da, gero eta indar handiagoz, gure edukien ardatza. Industriako enpresa handietan hainbat itxura hartzen du bazterketak: azpi-kontratazioa, behin-behineko lanpostuak edo soldata eskala bikoitzak langile berrientzat... Zerbitzuen enpresak soldata txikiengatik eta malgutasun gehiegizko lan-baldintzengatik bereizten

dira. Eta zerbitzu publikoetan, gainera, oraindik ere bete gabeko aldarrikapenak badira: aurrez pribatizatutako zereginen homologazioak, esaterako.

Manufaktura-enpresa ertain eta handietan, eta sindikalizazio maila handiena dutenetan, gainera, erasoaldi gogorra gertatzen ari da enpresarien aldetik, hitzarmenetako klausulak berraztertzeke, besteak beste soldatarena, lanaldiarena eta lan-denboraren antolaketarena. Modu horretara, sindikatuak aurrez eskuratutako lorpenak murriztu nahi dituzte.

Lorpenak, noski, partzialak dira eta aldeak daude batetik bestera, baina, aldi berean, era guztietako enpresa eta jardueretara hedatzen dira. Aldeko erreferentziak finkatzen dituzte lorpen horiek, mugarri moduko batzuk, eta aukera ematen dute lan hori pixkana-pixkana beste eremu batzuetara zabaltzeko.

Eraitza hauen ondoan, sektoreko dinamika batzuk ere izan dira, kasu batzuetan patronalaren blokeoak hausteko, indarren artean behar besteko korrelaziorik ez zegoen lekuetan –saltokietan, adibidez– eta, bestetan, eraikuntzan esaterako, geuk bakarrik ekintza sindikal indartsua garatzeke.

Sektore batzuetan, behar adinako aldarrikapen-indarrik ez zegoela iruditzen zitzaigun, hainbat arrazoi zirela medio: besteak beste, lan-baldintzen bateratasun falta, metalean, altzarien alorrean, egurrarenean... Bada, sektore horietan lan- eta enpresa-hitzarmenak orokortzen joan gara, eta ETEetarako ere iritsi gara.

Nafarroan, %21,46koa da jada gure ordezkaritza. Herrialde hartan kontzertazio iraunkorraren ereduak da nagusi eta, ondorioz, gure negozioazio kolektiboak aurre egin behar izan dio eredu horri. Hala ere, hainbat aldarrikapenen bidez –hala nola, subrogazioa eta enpresa-hitzarmen batzuk zabaltzea– sindikatuak erreferentzialtasuna bereganatu du eta lurralde osora ari da hedatzen, gainera. Erribera bezalako inguruetan, esperientzia ia iraunkorra da eta esan liteke aldarrikapenezko aukera sindikal bakarra garela.

Ahalegin militantea da, inolako dudarik gabe, osagai garrantzitsuena eredu sindikal honetan. Horren ondotik erresistentzia-kutxan izandako arau aldaketak azpimarratu beharrean gaude. Grebek elkartasunezko sostengu horren beharra dute; lan-uzte batzuk, gainera, iraupen oso luzeak izan dira.

Asko aurreratu dugu negozioazio kolektiboaren prestakuntzan: gero eta garrantzia handiagoa ari gara ematen langileen eta afiliatuen parte-hartzeari. Izan ere, eskakizun demokratikoa da parte-hartzea, baina, horrez gain, oso tresna eraginkorra da, parte-hartzearekin eta afiliazioarekin baino ezin baitzaio ekintza sindikal indartsuari eutsi. Aldarrikapenezko eredu sindikalak eremu aldekoenak bilatzen ditu uneoro; eredu horretan, ekintza sindikala eta afiliazioa, beharrian eta aukera beraren osagai dira.

Uste dugu, gainera, gai hau orokortu egin daitekeela: afiliazioaren eredu edozein dela ere (banakakoa edo kolektiboa) eta negozioazio kolektiboaren egitura edozein izanik ere, lan-baldintzak hobetzeak izan behar du pizgarririk handiena, eta bermerik onena afiliatorako eta ekintza sindikalerako.

Negoizio kolektiboaren sokari tenkatuta eusteak –batzuetan bakarrik eta ia beti gure ekimenez– era askotako oztopoen aurrean jarri gaitu. Aurreko garaietan, gainera, nekez aurreikusi zitekeen halako oztoporik. Esate baterako: hortxe dago aginte politikotik Ertzaintzari eman zaion eginkizuna, lan gatazketan esku hartzeko; edota estatu osorako hitzarmenen eskumenen inbasioa; edota enpresetan eta sektoreetan enpleguaren kontrola ziurtatu nahi duten hitzarmenak. Azken praktika hori ematen da jada eraikuntzaren alorrean eta enpresa handietan.

Nolanahi ere, txosten honek bi gai bereziki larriren gainean jarri behar du arreta, larriak borondate txarra erakusten dutelako. Alde batetik, hor dira gutxiengoan adostutako hitzarmenak eta, bestetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak espediente zabaldu die sindikatuak. Gutxiengoan

adostutako hitzarmenek erlatibizatu egin nahi dituzte gehiengo sindikalak; izan ere, oso ordezkaritza txikia duten sindikatuarekin sinatzen dituzte akordioak. Espedienteak, berriz askatasun sindikalaren kontrako eraso zuzena da.

Patronal pribatuak joera du akordioak gutxiengoan lortzeko, modu horretara aldarrikapena eta gatazka bera itzaltzen baititu. Hala egiaztatu ahal izan dugu hainbat sektore eta lanbidetan: Hormigoiak eta Harrobiak, Arrain-Kontserbak, Metala, Okindegiak, hainbat enpresa eta abarretan. Eusko Jaurlaritzaren eskutik asmo estrategikoago bati begira hartutakoak dira akordio horiek. Eusko Jaurlaritzak praxi hau orokortu egin du: Mahai Orokorra, Administrazio Autonomoa, Unibertsitatea, Irakaskuntza ez unibertsitarioa, Osakidetza... Joera hori, gainera, Itzarriren kudeaketara zabaldu du. EAEko administrazioaren aurreikuspen-funtsa soziala da Itzarri. Nafarroako Gobernuak ere, aldian behin, gutxiengoekin iritsitako akordioak baliatu izan ditu (Mahai Orokorra, MIR...).

Jarraibide hori makurra da, demokraziaren aurkakoa delako, eta horri aurre egiten ari gara, ekin-tza sindikal alternatiborako eremuak eta dinamikak bilatuz.

Hormigoi eta Harrobien sektorean patronalarekin irekitako gatazkaren amaiera ekarri nahi dugu gogora. Gutxiengoan sinatu ondoren, ELAk indar handiko greba gidatu zuen. Greba horrek administrazioarekiko auzia ekarri zuen eta auzi horretan kartzela zigorra eskatu zuen patronalak zenbait militantentzat eta erantzukizun zibil subsidiarioa sindikatuarentzat.

Azkenean, akordioa lortu da, ebazpen judizial batean oinarrituta. Ebazpen horren bidez sindikatua erantzukizun orotatik salbuetsita geratu da eta gure militanteek ELAren babesa izan dute ordaindu beharreko diru-kopuruari aurre egitekoa, eta, hala, erantzukizun penal orotatik libre geratu ahal izateko.

Baina auzi horretan bada kontu nabarmenagorik: patronalaren jokabidea, hain zuzen. Hitzarmenak gutxiengoan itxtearekin nahikoa ez, eta ekin-tza sindikala jazarri nahi du aipatutako mugaraino. Jokamolde horren ondorioz, ELAk utzi egin zuen Lan Harremanen Kontseilua (LHK); sindikatuaren irudiko aldebiko organo hori –sindikatu eta patronalaren bilgunea– erabat baliogabetua geratu zen, negoziazio kolektiboaren joko-arau demokratiko gutxienekoak ez baitzituen errespetatzen.

Noski, erabaki hori negoziazio kolektiboari buruz egin dugun lau urteotako balantzean ere, guk behin betikoa jotzen baitugu organo instituzional horri uko egin izana. Hau ere gure ikasketaren zati bat da, hasierako gure marko-erreferentzian egiten ditugun zuzenketetako bat.

Egokia da aipatzea behin eta berriro saiatu garela beste sindikatuarekin negoziazio kolektiboaren gainean auto-babes sindikalari buruzko akordio batera iristen, hain zuzen horretarako: patronalak nahi erara jokatzeko ahalmena murrizteko. Tamalez, gure eginahal horrek ez du emaitzarik eman.

ELAren irudiko, bestalde, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak sindikatuari zabaldutako espedientearen atzean Eusko Jaurlaritzaren bultzada dago, Ogasun eta Industria Sailen bultzada, zehazki. Sail horiek zuzenean izendatu dituzte auzitegi horretako kideak; euren konfiantzakoak izatea, beste baldintzarik gabe.

Organo horiek gobernuaren beste tresna batzuk baino ez dira, politika neoliberalen zerbitzura, eta sindikatuen lana zigortzea erabaki dute, beren planak kritikatu gero; hala, batere zalantzarik gabe jotzen dute auzibidera, sindikatuen askatasuna murrizteko, kasu honetan saltokietako langileen jaigunetako atsedinari loturiko eskubideak.

Aipatutako egoerak zailak izan arren, uste dugu negoziazio kolektiboaren gure mugak, inondik etortzekotan, gure hutsuneetatik datozela batez ere. Hutsuneak hauek dira: militantzia, berritzea, parte-hartzea, ekimena, antolaketa, berrikuntza... Horregatik, ezin dugu bertan goxo egin.

Alabaina, kontuan hartzen dugu eta txalotzen egindakoa, ez gutxi ere, gainditu beharreko zailtasunak ez baitira makalak izan. Zailtasun horien artean, besteak beste, aliantza sindikalik ez da izan, ez laukorik, ezta bikorik ere.

Etorkizunari errepara diezaiokegu, hurbiletik hasita, eta, batez ere, barnean ditugun erronkak miran jarrita. Azken batean hori baita erronka: norbere esku dagoena.

III. GIZARTE EREDUA: BADA AUKERA BESTE EUSKAL HERRI BATERAKO

EAEko PFEZk, sortutako errenta osoaren %6 pasatxo biltzen du, duela 10 urte biltzen zuena baino %20 gutxiago, Estatuko batez bestekoa baino %5 gutxiago, nahiz eta han, biztanle bakoitzeko errenta %30 txikiagoa den. Nafarroan zertxobait txikiagoa da. EBn, batez besteko presio fiskala Hego Euskal Herrian baino ia %50 altuagoa da, eta zenbait herrialdetan, hala nola, Belgika, Danimarka eta Finlandian, bikoiztu egiten da.

Zer-nolako zergaz ari garen hartu behar da kontuan. PFEZaren bidez jasotzen den kopuruagatik –zergetatik biltzen den diruaren %30 inguru– eta zergaren beraren izaeragatik –pertsone fisiko guztien errentei eragiten baitie–, zerga hau funtsezkoa da politika fiskala nolakoa den antza hartzeko, bai eta, oro har, gizarte-politika osoa zer-nolakoa den jakiteko.

Iruzurraren maila eta zerga-moten bikoiztasuna –errentak langilearenak edo kapitalarenak diren–, hara hor emaitzaren arrazoiak. Emaitzak berak agerian uzten du zerga-sistemaren bidegabekeria. Hori erakusteko hona bi txatal: lanaren batez besteko errenta aitortuak, jarduera profesionaletakoak halako bi dira, eta enpresa-jarduerak aitortutakoak baino %40 gehiago.

Horri eransten badizkiogu sozietateen gaineko zergaren gainean egindako murrizketa etengabeak eta enpresei eskainitako diru-laguntzen bidez gertatutako finantza-fluxuen drainatzea, ondorioa garbia da: Kontzertuaren eta Hitzarmenaren 30 urte hauek diru-sarrera handienak dituztenen eta zenbait sektoreren aldeko kudeaketa fiskala egokitze baliatu dituzte; eta, hain zuzen sektore horietako errentak ez datoz lanetik.

Beste modu batera esanda: autonomia fiskalak, autogobernuaren maila blindatu ordez, higatu egin du modu objektiboan, gehiengoaren interesa bilatu ez duen neurrian, eta hori elite ekonomikoen aginduetara egin du. Hori guztia, gainera, erabat ezkutuan, informazio aldetik inolako gardentasunik gabe.

Presio fiskala EBn baino 8 puntu baxuagoa da; areago: Estatuko batez bestekoa baino baxuagoa. Horrek, nahitaez, eragin kaltegarria sortzen du gastu sozialean. Gainera, zerbitzuen eta estaldura publikoen joera ikusirik, indartu egiten da aipatutako aldeko tratua zergak biltzeko politikan.

Horren ondorioz, ez da harritzekoa, BPG-aren aldetik hornidura txikia izatea osasun publikorako –Batasuneko txikiena, kasik– eta, horrez gain, pribatizatzeko prozesuak geldiezin ematea. Eskandalua bihurtzen ari da osasunaren arloko politikako agintari publikoek, publizitate hutsetik areago, ospitale handiei eta proiektu pribatu berriei ematen dieten babesak eta estaldura.

Ez da harritzekoa, orobat, hezkuntza alorreko finantza-defizita, 0 eta 3 urte arteko adinean, zehazki. Alor horretan administrazio publikoak egiten duen ahalegina, EBko azken muturrean dago.

Azkenik, ez da harritzekoa, eta bai, aldiz, oso adierazgarria, mendekotasunen eremura bideratzen den gastu eskasa, zuzenean ekimen pribatura joatea; mendekotasuna duten pertsonen gero eta behar handiagoak dituzte eta ekimen pribatua negozio handia ari da egiten haien kontura. Eskandalu hutsa da, halaber, administrazioetako arduradunak, baita alor horien pribatizatzea erabaki dutenak ere, negozio horietako kudeatzaile izatera pasa direla.

Panorama osatzeko, etxebizitzaren alorreko politika ere azter genezake. Emantzipatutako gazte gehienak beren gain hipoteka latzak hartzerantz behartzen ditu politika horrek, batzuk 50 urteraino-

koak. Eta, bien bitartean, inolako kontrolik gabe espekulatzen da. Arduradun politikoak sektoreko interes pribatuen esanetara jarri dira. Orain, eskandalua areagotzeko, hipoteken krisiak zabal dutako egoera orokorrean estaltzen dute beren erantzukizuna.

Datu hauei guztiei beste bat gehitu behar zaie: urtea joan, urtea etorri, ekitaldiak superabitarekin ixten dira; BPGdren %2ra iristen da superabita urteko. Ondorio bakarra atera daiteke: politika horren helburua da baldintza objektiboak (gero eta behar handiagoak) eta subjektiboak (iritzi publikoa eta ideologia) sortzea arian-arian pribatizatzea jotzeko, eta hori guztia behar sozialei aurre egiteko zer finantziazio aukera dauden alde batera utzita.

Gastu sozialaren atalean ere diru-sail garrantzitsuak geratzen dira euskal eremutik kanpo, hala nola pentsioak eta langabeziako sorospena. Horri ere gaizki deritzogu. Toledoko Hitzarmenaren babesean, pentsioak gero eta gutxiago dira publikoak, eta langabeziaren estaldura jaitsi eta jaitsi ari da etengabe.

Hori guztia gertatzen da euskal administrazioen kudeaketa neoliberalean, baita estatukoan ere, presio-talde ahaltsuen interesak nagusitzen direlako. Talde horiek gero eta zerga gutxiago ordaintzen dute eta negozio-gune berriak eskuratzen doaz, zerbitzuak eta prestazioak pribatizatzen doazen heinean.

Kudeatzaile publikoak eta arduradun politikoak alor pribatura pasatzen dira eta adierazle hori bera ez da batere lasaigarria. Kudeaketa publikoaren eta interes pribatuen arteko nahasketa gero eta handiagoaren seinale da batetik bestera iragaite hori. Iritzi publikoa ohartzen da horretaz, eta, ondorioz, sinesgarritasun ekonomikoa ere higatzen doa.

Nahiz eta baliabide handiak inbertitu edo komunikabide publikoen gainean kontrola zorrotzu, egoeraren txartze hau guztia ezin da propaganda hutsez zuritu.

Baldintza hauetan, elkarriketa soziala bultzatzen saiatzea ezinezkoa da, batez ere parte-hartze guneak edo eremuak edukiz hustuta baldin badaude eta gehiengo sindikalak ez baditu babestu nahi parte-hartze eremu horiek.

ELA LHKtik atera izanak are ageriagoan utzi du erakunde horren krisia. Eta LHKren krisiari Hobetuz fundazioarena eta EAEko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialarena erantsi behar zaio. Zehazki, Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa da Hobetuz. Bi erakunde horiek uztea erabaki dute bai ELAk eta bai LABek. Arrazoiak, hauek: Hobetuz fundazioan ez zegoelako eredu propiorik, baliabide ekonomikoak modu egokian erabiltzea bermatuko zuenik, hau da, patronalarantz eta zenbait antolakunde sindikalentzat diru-iturri izan gabe; eta bigarrena, gune antzua bilakatu delako, ez dagoelako ez edukirik ez eta konpromisorik erakundearen eta patronalaren aldetik. Kontseiluak, gainera, modu sistematikoan eragozpenak jartzeko jarrera hartu du.

Osalanen egoera ere negargarria da: ezbehar-kopurua handia izanagatik ere, erakunde horretan ez dago lan-egutegirik prebentziorako eta ikuskapenerako politikak burutzeko. Osasunerako eta lan-segurtasunerako hiruko erakundea da Osalan.

Egoera hala, Eusko Jaurlaritzak erabaki du estatuko elkarriketa soziala mimetizatzea. Horixe bera egiten dute Nafarroan ere. Hobetuzen, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialean ari dira egiten... eta gutxiengo sindikalaren legitimotasuna besterik ez dute bilatzen.

Puntu horretara iritsita, garrantzitsuena ez da elkarriketa sozialaren krisia, baizik eta, praktikan, gobernuek, patronalak eta enpresa-sektoreek adosten dituztela politika fiskalak, arlo publikoko lan politikak eta zerbitzuen pribatizatzea.

Alde horretatik, aukera izan dugu egiaztatzeko defizit demokratikoa noraino iristen den, proposamen sozial zehatzak bilduko dituzten eztabaidei heldu nahi izan diegunean, hain zuzen.

EAEko Legebiltzarrak uko egin zion herri-ekimen legegile bat eztabaidatzeari. Nafarroan bai, ekimenak igaro zuen izapide hori, baina hortik aurrera ez zuen aurrera egin Nafarroako Legebiltzarrean.

Demokraziaren defizit hori bera antzematen da abiadura handiko trenaren gaineko eztabaidan. Proiektuak halako munta ekonomikoa eta ingurumen aldetik halako eragina izanik, aukera ezin hobea litzateke AHTaren gaia, ondo informatutako hiritarrek kontsulta baten bidez beren iritzia eman ahal izan dezaten.

Gure agintariek uzkur eta aurkako jarrera nabarmenaz hartzen dute beren kontrolpetik kanpoko edozein ekimen sozial. Beraien demokrazia ikusteko modua ez da apenas parte-hartezkoa. Gainera, ordezkapen mailara iritsirik, arauak onartzea formazko izapide hutsa baino ez da, batzar nagusietan gertatzen den bezala.

Era berean, sindikatuak zerga-arloari edo gastu sozialari buruzko eztabaidak mahai gaineratzen dituztenean, ezbaian jartzen dute sindikalismoaren eginkizuna, eta desaire eta gaitzespen nabarmenekin erantzuten dute.

Politika fiskalen eta gastu sozialaren segimendu etengabea egin du ELAk, hainbat txosten landu ditu, eta EAEko eta Nafarroako gobernuen programa kritikatu du horietan. Osasun publikoaren pribatizatzea edo iruzur fiskala bezalako gaietan, gure balorazioek eta kritikek zenbat eta gehiago indartu iritziak, orduan eta gordinagoak izan dira agintarien erreakzioak.

Esan dezakegu sinesgarritasun handia irabazi dugula, zorrotz eta atsedetik gabe lan egin dugulako, eta euskal gizarteko sektore askok guk aldarrikatzen dugun gauza bera eskatzen dutela uste dugulako: gizarte ereduak arreta gehiago izatea eguneroko politikaren kudeaketan.

Lau urte hauetan gizarte ereduaren inguruan ere aritu da sindikatua ekinean. Hainbat esku hartze izan ditugu alorrez alor: osasunean, hezkuntzan, AHTaren inguruan, etxebizitzan, gizarte-zerbitzuetan...

2007 amaieran eta 2008 hasieran kanpaina bat burutu da gizarte ereduaren inguruan. Ekintza egokia izan da sentsibilizazioan eta barne-konpromisoan egindako lanari amaiera emateko. Lan horrek iritzi publikoaren sektore zabalagoetara iritsi nahi du. Enpresetan eta eskualdeetan egindako lana eta pasa den otsailaren 15ean Bilbon egindako ekitaldi nagusia –mitina eta manifestazioa izan ziren– bide luze baten abiapuntua baino ez dira. Hasiak gara ibilian eta ez gara geldituko.

Kanpaina horretan azpimarratzekoak izan ziren edukiak eta, sindikatu gisa, eremu horretan lan egiteko dugun zilegitasun ukaezina. Baina ez hori bakarrik: nabarmentzekoa izan zen, orobat, erabilitako metodoa. Horren bidez gure antolakuntza-ereduan, lan-egutegian eta lehentasunen artean egokitu dugu gizarte-ereduaren gaia.

IV. BURUJABETZAREN ALDEKO INDARREN METAKETAK EZ DU ALTERNATIBARIK

ELAk hala esan zuen 1997an, Gernikan: «ETA soberan dago eta traba egiten du» eta «Estatutua hilda dago». Horrekin zera azpimarratu nahi genuen: burujabetzaren aldeko prozesuak baieztapen bikoitz horretatik abiatu behar zuela; premiazkoa zela indarrak biltzea egun indarrean den marko juridikoa gaingitzea.

Formulazio horretan diagnosi hirukoitza dago:

- Espainiako Estatuak ez du inolako borondaterik euskal erabakitze-eremua errespetatzeko, eta, ondorioz, ezta euskal gatazkari irtenbide demokratikoa emateko ere.

- Estatutuaren markoak eskumen-maila mugatua eta itzulgarria ematen du; lurraldearen banaketa egiturazkoa bihurtzen du eta galarazi egiten du hausturarik gabe beste egoera politiko batera igarotzea.
- Ekimen armatua ez da bidea burujabetza lortzeko. Aitzitik, traba izugarria da.

Diagnosi hirukoitz horrekin batera, une hartan bertan proposamen sendo baten beharra planteatu zen jada. Helburu jakin batzuk, borroka politiko eta sozialerako molde batzuk eta estrategia partekatua, horiek jaso behar zituen proposamenak.

Harrezkero igaro den denboran, hainbat abagune eta egoera izan dira; guretzat, baikorrena, Lizarra-Garaziko adierazpena ekarri zuen huraxe izan zen; indarrak modu zibil eta demokratikoan metatzeko prozesua zabaltze aldera oinarriak jarri zituen Lizarra-Garazik.

Abertzaleen artean sortutako ilusioak eta itxaropenak ez zuen halakorik ezagutu, ez eta Estatuak halako kezkarik inoiz sentitu. Harrezkero, ez zuen estrategiarik aldatu euskal gatazkaren inguruan, baina, birmoldatu, bai, birmoldatu zuen, Lizarra-Garazik gorputz har ez zezan eta ibilbide politiko eta soziala egin ez zezan.

Indar abertzaleak ez ginen gai izan adostasuna kudeatzeko eta garatzeko, eta ETAk su-etena hautsi izanak galarazi egin zuen adostasun hori itzulezina izatea, nahiz eta horretarako aliantza, konpromisoak, denborak eta kudeaketa bera berriro planteatu behar izan.

Baina indar espainiarrek –alderdi politikoen, patronalak, sindikatuek– eta estatuaren aparailuek garbi izan dute Lizarrak geroztik bene-benetako salbuespen egoera jarri behar zela indarrean: terrorismoaren kontrako paktua, Alderdien Legea, disidentzia politikoaren kriminalizatzea... modu horretara gisa horretako bestelako ekimenak galarazteko. Bide horretan, legez kanporatzeraino iritsi dira.

Soka horrek ekarri du gero Egunkariaren itxiera edo 18/98 prozesua. Halakoek eta presoek esku-bide-bortxaketa sistematikoak beharturik, salaketa aktiboari eta etengabeari eutsi diogu halako desmasien aurrean, gizarteko beste sektore batzuekin batera.

Iruditzen zaigu hauxe izan daitekeela hari gidaria lau urte hauetan euskal politikaren eremuan gertatutakoaren gaineko balorazioa egiteko. Laurteko aldi honen hasieran bi proposamen izan ziren: batetik, Anoetakoa, eta, bestetik, Lehendakariaren «ibilbide orria» deitua.

Burujabetzaren aldeko indarren metaketari alternatiba gisa, proposamen biek «zeharkako akordioari» eman diote lehentasuna eta izaera estrategikoa, eta biek laga dute alde batera estatuak burujabetzaren gaian erakutsitako jarrera menderaezina. Jarrera hori, gainera, ez da aldatuko non eta indarren korrelazioa ez den aldatzen, eta horretarako beharrezkoa da aldebakarreko planteamenduak gainditzea.

ENAMen aldetik betidanik izan da gatazka politikoa eta militarra aldi berean konpontzeko nahia, baina huts larria da planteamendu hori, bi prozesuek erritmo eta subjektu desberdinak behar dituztelako. Horrek ez du esan nahi bake-akordio batek daukan garrantzia, akordio horrek sortzen dituen zailtasunak eta, areago, akordio horrek sortutako eskakizun politikoen garrantzia erlatibizatu behar denik. Nolanahi ere, ziklo armatuaren amaiera erabat premiazkoa eta lehentasunezkoa da.

Lehendakariaren «ibilbide orriak», berriz, erronka jo dio estatuari, baina erronka horrek sakoneko hainbat inkoherentzia nabarmen ditu:

- Lehena, legegaldi ia osoa agortu duela aurrez ere egiaztatua zegoena egiaztatzeko: estatuak batere borondaterik ez duela inolako akordio edo aldaketarako.
- Bigarrena: EAEn bertan burujabetzaren eta estatutismoaren arteko eztabaida politikoari irtenbiderik eman gabe estatuari erronka jotzea.

- Hirugarrena: gobernuaren kudeaketa bera ez da egokiena izan, batuketa politiko eta soziala bultzatu beharrian, joera neoliberalak agertu duelako, zenbait elite ekonomikoren aginduetara, joko-arauak urratuz eta euskal sindikatuen gehiengoaren kontra prozedura administratiboak abiatuz. Ez da gehiegi esatea, Eusko Jaurlaritzak barneko etsai gisa hartzen gaituela gai hauetan.
- Laugarrena: gaur egungo autogobernu maila ez tinko babestea. Hala, adibidez, oraindik ere iristeko dauden transferentzien finantza-fluxuak hartzen ditu bere gain, ontzat emanda funts horien kudeaketa estatutik ezarritako irizpideen arabera izango dela. Gogoratu behar da Estatu horrek politika zentralista muturrekoa egiten jarraitzen duela sindikatuak dagokienean. Hala, ELA baztertzera ere iritsi da, ondare historikoa itzultzeko gaian, esaterako. Auzi horretan helegitea abiatu behar izan dugu auzibidetik.

Prozesuak porrot egin ondotik ETaren aldetik armetara itzultzeko erabakia etsigarria izan da, eta, orobat, etsigarria izan da estatuaren erantzuna ikusirik –espero zitekeena erabat–, Lehendakariaren erantzuna: hauteskundeak deitzera mugatu da, lehenago edo beranduago. Ezin da ezkutatu planteamendu osoak, bai diseinuak, bai kudeaketak eta bai epeak, daukaten hauteskunde kutsua, eta amaiera guztiz etsigarria izan du.

Epe honetan, aurrez esandako guztiarekin koherentzia gordez, burujabetza-prozesu zibil eta demokratiko baten aldeko apustuari eutsi dio ELAk, zalantza izpirik gabe eutsi ere. Prozesu horretan, funtsezko mugarra da kontsulta. Euskaldunok eskubidea dugu gure etorkizuna erabakitze-ko, eta, hain zuzen, eskubide hori zehazteko eta gauzatzeko tresna da kontsulta. Proposamen horrek nahitaez bete beharreko epe bat dakar, eta, aurrez zehaztutako egoeran, estatuarekin aurrez aurre aritu beharra, bai politikan eta bai gizartean.

Gai horrek denbora asko hartu du gure gogoetan, lau urteko epe honetan. Gogoeta hori Aberri Egunaren kariatara joan da mamitzen funtsean. Beste bi agiri ere landu dira, eduki aldetik burujabetzaren aldekoak biak, eta, hirugarren ekarpen nabarmen bat ere izan da.

- Lehenak «Burujabetza irabazteko konfrontazio demokratikoa prestatu» du izenburua; 2005eko irailean onartu zuen Batzorde Nazionalak hausnarketarako agiri hori, ENAMek Anoetan zabaldutako prozesuaren inguruan gure posizioa aztertzeke eta finkatzeko.
- Dokumentuetan bigarrena, «Autodeterminazioaren aldeko esparru sozial eta politikoa landu», hori ere Batzorde Nazionalak onartu zuen 2007ko ekainean, burujabetzaren aldeko gure ikuspegia marko zabalago batean eguneratzeko eta testuingurura egokitzeko. Marko zabalago horrek egoera laboral eta sozialaren ikuspegia jasotzen du eta bi-biak funtsezko osagaitzat hartzen ditu Euskal Herriko egoera politikoaren analisi sakona egiteko.
- Hirugarren ekarpenean, Bilboko Arriaga Antzokian 2007ko urriaren 10ean izandako hitzaldiak jasotzen dira. Gernikako ekitaldiaren X. urteurrena dela-eta izan zen Arriagakoa. Helburua, horixe bera: burujabetzaren aldeko indarrak biltzea gaur-gaurko gaia dela aldarrikatzea.

Epe honetan, ETA lehengo berera itzuli da eta estatuaren politika antiterroristak gogor zigortzen ditu erakunde armatuarekin batere zerikusirik ez duten sektore politiko eta sozialak. Horrek jarraia irmoa hartzeraren eraman gaitu, bai ETaren ekintzak bai estatuaren errepresio gero eta gogorragoa, biak ala biak gaitzestera. Kontua ez da muturren erdian kokatzea, baizik eta koherentzia demokratikoari eustea.

Jarrera bat edo bestea hartzetik areago, ordea, hainbat protesta ekintza antolatu ditugu. ELAko ordezkari ugari hartu du parte ekintza horietan, esparru hori ere abertzale ikuspegitik defendatu behar delako uste sendoarekin.

ELAk uste du badagoela aukera eta beharrezkoa dela Lizarra-Garaziko espiritura bueltatzea, badagoela aukera gaur egungo garaietara etorri eta abertzaleen indar-metaketen bidez zeru-

muga zibil hura berriro osatzeko. Eta zeregin horri begira, ELAk uste du aintzat hartu beharko liraketeela porrot egin duten saio eta esperientziak. Zerumuga horretan ez litzateke borroka armaturik izango, ez estatutuaren aldeko jarrerarik, ez alde bakarreko ekimenik... eta amaitutzat eman-go litzateke «zeharkakotasunaren» diskurtsoa. Bide hori, nahi dutenek eta ahal dutenek egitekoa da, jakitun izanda luzea izango dela eta pazientzia eta iraunkortasuna beharko direla. Orobat, besteekin estrategia partekatzeko dialektika onartu beharko da, nahiz eta, aldi berean, bakoitzak bere interesak eta lehentasunak izan.

Indarrak biltzea are premia handiagoa da kontuan izanda estatuan PSOE eta PP ia eskutik doazela. Bat-etortze horretan gai oso garrantzitsuak daude, hala nola, estatuaren lurralde-eredua, errepresio-politika eta botere judizialaren banaketa. Soka horri tiraka, Rodríguez Zapaterok eta Rajoyk 2008ko uztailean izandako bilerak oposizioa egiteko modu tirabiratsu bati eman zion amaiera, ez besterik. Bilera horretan, estatu-paktuko elementuak alderdikerietan ez erabiltzea adostu zuten. Benetan garrantzitsua, ordea, zera da: trantsizio politikoaren hasieraz geroztik frankismoaren eta Espainiako sozialismoaren oinarreko politikoen artean iraun duen jarrera partekatuari beste bultzada eman zaiola: Espainia bat eta uniformeari, alegia.

V. PRESTAKUNTZA ETA ARGITALPENAK:

KONPROMISO MILITANTEAREN NAHITAEZKO OSAGAIA

Gure aldarrikapenezko izaerak ahalegin berezia eskatzen du prestakuntzan eta argitalpenen alorrean. Neoliberalismoaren aurrean bestelako aukerak badirela agertzea, hori da ahalegin horren funtsa; horretarako, pentsamendu propioa mamitu behar da, eta boterearen kontrako sindikalismoaren praxitik aurrerapausoak eman behar dira. Praxi hori bera da gure sindikalismoarentzat esperientziarik baliotsuena.

Prestakuntzaren arloan, maila guztietan egiten dugu lan: zuzendaritzan, delegatuen artean eta afiliazioan...

Gure bilera organiko konfederal guztietan –Kontseilu Nazionala, Batzorde Nazionala, Batzorde Eragilea– egoeraren analisiak jasotzen ditugu modu erregularrean, uneoro gure posizio sindikalak, sozialak eta politikoak egunean izateko. Batzorde Nazionalak, gainera, prestakuntzarako saio bat dauka hiru hilabetetik behin; lanaldi erdikoa da saio hori eta Konfederazioko beste talde kualifikatu batzuek ere hartzen dute parte.

Urtero bi jardunaldi izaten dira udako unibertsitatean talde iraunkorrenzat. Eginkizun sindikalean oinarritzko jotzen ditugun gaiak sakontzeko baliatzen dira jardunaldi horiek.

2008az geroztik, prestakuntzarako beste hiru jardunaldi oso gehitu ditugu, talde iraunkorrenzat horiek ere. Era berean, hilean behin, Batzorde Eragileko kideek eskualde-batzordeetako bileretan hartzen dute parte, egoerari lotutako gaiak aztertzeko eta antolakuntzako zeregin zehatzagoak jorratzeko.

Delegatuei dagokienez, urtean 300etik gora ekitaldi egiten ditugu ordezkariak prestatzeko, eta 5.000 bat lagunek hartzen dute parte ekitaldi horietan. Eredu sindikalari, egoerari eta gai zehatzagoei buruzko oinarritzko gaiak aztertzen dira jardun horietan. Lan-taldeetan lehentasunezko zeregintzat hartu da prestakuntza; horrek nabarmendu egiten du antolakuntza-planarekin duen lotura estua.

Batez beste 20 bat hitzaldi antolatu ditugu urtean, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan banatuta. Gaiak, askotarikoak izan dira: gai sindikal, sozial eta politikoez gainera, bestelakoak ere jorratu dira ekitaldi horietako batzuetan, kulturarekin lotura dutenak, esaterako.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da Ipar Euskal Herrian izan den jarduera bizia. 2006an eta 2007an 24 eta 21 hitzaldi eman dira, hurrenez hurren. Ehunka lagun izan dira urtero ekitaldi horietan.

Prestakuntzari begira argitalpen ugari lantzen da ekitaldi bakoitzean: hala, hogeitik gora gai jorratzen dira urtean. Argitalpen horietako batzuk monografikoak dira, gai bakar baten ingurukoak. Eta horiei gehitu behar zaizkie egoera-azterketak.

Prestakuntzaren inguruko lan hau guztia, funtsean, Manu Robles-Arangiz Institutuaren bitartez egiten eta bideratzen da. Tresna erabakigarria bihurtu da Institutua ELAren eginkizunean. Gainera, Iparraldera ere hedatu da, eta horrek aukera eman du lurralde horretan, etorkizun aberzale eta aurrerakoia izango bada, zenbait proiektu estrategiko babesteko eta bizitzeko, hala nola, Laborantza Ganbara eta Enbata. Elkarte-arteke Baionako bulegoa, beste lorpen batzuen artean, 20 bat elkarteren egoitza sozial bilakatu da; elkarte horiek modu erregularrean bileretarako erabiltzen dute bulegoa.

Landeia, afiliazio guztiarentzako hedapen-organoa, diseinu berriz jantzi da lau urte hauetan. Hala, aldizkari erakargarriagoa, biziagoa eta gaurkotuagoa bihurtu da.

Astekaria, berriz, 3.000 delegatu baino gehiagori helarazten zaio astero-astero. Argitalpenaren helburua da soka sindikala beti tenkatuta, gaurkotuta eta motibatuta mantentzea. Alde horretatik, tresna oso eraginkorra izan da Astekaria.

Aipatzekoa da, era berean, federazioetako eta eskualdeetako argitalpenetan egin den ahalegina: edukiak hobetu eta gure irudia bateratu da agerkari horietan. Halaber, arreta berezia eskaini zaio hauteskunde sindikalen epeari. Hainbat material inprimatu eta landu da modu sistematikoagoan hauteskunde-aldi horretarako; modu horretara, edukiak, aurkezpena eta bizitasuna hobetu ditugu.

Web-orriaren diseinua ere berritu eta gaurkotu da, eta, hala, eraginkorragoa egin da. Uneotan, leiho erakargarriagoa eta eskuragarriagoa da gure balorazioak eta informazioak bertan biltzeko.

VI. ANTOLAKUNTZA:

BUKATU GABEKO EGINKIZUNA OINARRIKO ANTOLAKUNDEAK DINAMIZATZEKO

Eskualdeko zortzi batzorde zeuden araudia onartzeke eta, azkenik, burutu dugu lan hori. Hala, beste zerumuga bat zabaltzen da haien antolakundearen garapenean: herri batzak osatzea eta bultzatzea. Era berean, eskualdetako kontseilu guztiak modu erregularrean ari dira funtzionatzen.

Federazio bakoitzak bere biltzarra egin du; birentzat, Hainbat eta Gizalan federazioentzat, hain zuzen, lehen biltzarra izan da bat-egite aurreko haren ondotik. Kasu guztietan, biltzar hauen bidez lanerako plangintzak finkatu eta zehaztu ditu federazio bakoitzak.

ELArentzat antolakuntza ez da osagai funtzional huts-hutsa, bitartekoak eta eginkizunak hobeki ordenatzeko; hori baino gehiago da: eredu sindikal konfederalaren beraren parte da, sektore arteko izaerarekin eta tokian tokiko oinarriarekin.

Tokian tokiko oinarri horretan hainbat sektore biltzen dira; hainbat neurritako ekoizpen-unitate eta zerbitzutatik datoz sektore horiek. Militanteak dira oinarri horren sostengua eta, gune itxirik gabe, oinarri hori gai da esparru guztietan ekintza sindikal iraunkorra eta eraginkorra martxan jartzeko: lanekoan, sozialean eta politikoan.

Hori dela-eta, gure antolakuntza-egitura azkar egokituz joan da eta zurruntasunik gabe, aurkeztutako aukeretara eta antzemandako beharretara. Areago: aurea hartu die aukera eta behar horiei, dinamika berriak sortu ahal izateko.

Gure federazioek izaera funtzionala dute, eta horri esker helburu jakin batzuk lortzeko kopuruetara iritsi ahal izan dugu. Helburu horiek hauek dira, besteak beste: pisu politiko berbera, giza baliabide parekoak, presentzia eskualde guztietan, kide anitzeko zuzendaritza-organo bat sortzea, Batzorde iraunkorra, alegia...

Egokitzapen hauetatik abiatuta eta, behin ETEetan lana banatuta, aurreragoko beste pausu bat eman ahal izan dugu: Lanera plana jarri dugu martxan. ETEak eskualdeka bildu dira, sektore-arte-ko dinamika batean. Lanera plan horretan, idazkaritzako arduradun bakoitzak bere esparruko zenbait unitate hautatu lantzen ditu, eta hainbat helburu zehatz ezartzen dizkio bere buruari: afiliazioa, antolakuntza eta negoziazio kolektiboa.

Kontua ez da, besterik gabe, eginkizunak antolatzea. Egutegia eta lan-agenda bera ere antolatu egin behar dira gutxieneko denbora neurtua eskaintzeko eta delegatuen talde aktiboena erregulatzen.

Beraz, aldi erabakigarria daukagu aurrean, lau federazioetan eta hamabi eskualdeetan sare trinkoa ehuntzeko. Delegatuen talde homogeneousak osa ditzakegu; talde horietan alde biko lana garatu behar da hautatutako enpresa bakoitzarekin eta lan kolektiboa ere bai. Lan kolektibo horretan berrikuntza, jarduera-planak, prestakuntza eta eskualdeko, federazioetako eta konfederazio-ko ekitaldietan parte hartzea sartzen da.

Eskualde-batza bakoitza lurralde-eremu integrala da. Giza baliabide guztiak zuzendaritza baka-rran biltzen dira, eta barruan biltzen dira batzordeko enpresak eta ETEak. Garapen horri esker, gorpuz ematen eta osatzen ari da eskualdeetako batzorde federalak eta herri batzak.

Oraindik ere bidea geratzen da egiteko, baina esparruak, helburuak eta lanerako metodoak eta egutegiak zehaztuta daude. Ohartzen ari gara jada jarduera batzuk bide onetik doazela, eta aurreko zenbait joera atzean geratzen doazela. Eta, aldi berean, ari dira emaitzak iristen afiliazioan eta antolakuntzan, berrikuntzan eta negoziazio kolektiboan.

Lan honen guztiaren xedea da gure delegatuen oinarria zabaltzea; ekimenean irabaztea; proposatzeko eta jarduteko ahalmen handiagoa izatea, eta, hori guztia, gure oinarriaren babesean; izan ere, ez dago aldarrikapenezko sindikalismo konfederalik lantoki bakoitzean oinarri antolatua izan gabe.

Delegatuen talde bakoitzak, lan-talde bakoitzak alegia, gutxienez bilera bat dauka hiru hilabetetik behin. Bilera horretan federazio bakoitzeko idazkari nagusiak eta/edo antolakuntza-arduradunak, eskualdeko arduradunak, eta, aldian behin, Konfederazioko Batzorde Eragileko bertako kide batek hartzen dute parte. Horrek, kohesio, dinamika eta ikuspegi partekatuak izateko funtsezko maila bermatzen du gure proiektu konfederalarentzat.

VII. KONPROMISOA, LEHENTASUNA ETA KUDEAKETA

ESKATZEN DUTEN ESKU-HARTZE EREMUAK

Kongresuko txostenean antolakuntzari eskainitako atalean, behar besteko xehetasunez jorratzen dira bai Batzorde Eragilearen ardurapeko arlo guztietan zehaztutako eginkizunak, bai zeregin horien balantzea.

Txosten honetan azpimarragarrienak iruditzen zaizkigun gaiak jaso ditugu, nahiz eta uneotan zein tokitan gauden zehazteko baino ez izan.

Lehenik eta behin, barne-plangintzan euskara normalizatzeko eman diren aurrerapausoak berretsi beharrean gaude. Nolanahi ere, bide luzea dago oraindik egiteko, kontuan hartu behar baita enpresetan liberatutako pertsona gehienak ez direla euskaldunak.

Lan-munduaren euskalduntzea gainditu gabeko ikasgaia da hizkuntza normalizatzeko eta, gainera, horrexek izan du garapen gutxien. Jarrera aktiboagoa hartu behar dugu enpresetan normalizazio planak eta neurriak bultzatzeko eta sektore publikoan egiazko koofizialtasuna lortze aldera aurrerapausoak emateko. Ezin dugu ahaztu, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria bereziki baztertuta daudela gai honetan.

Generoaren eta gazteen arloetan gaur egungo egoerak zerikusirik ez dauka 1990eko hamarkadako hasierako urteekin; izan ere, egungo hutsuneetatik areago, zeharkako garapena eta bilakera eman da sindikatuaren egitura guztietan. Horri esker, talde horiei gehien eragiten dieten arazoek leku nabarmenagoa dute gure ekintza sindikalean, eta, orobat, emakume eta gazte kopuru handia bildu da zeregin sindikaletara.

Jakina, urrats asko geratzen dira eta lan handia egin beharko da horiek zehazteko: gazteen arloa sendotu beharko da; eskubide zehatzak lortu beharko dira enpresetan berdintasunerantz jotzeko; negozioazio kolektiboa aztertu beharko da talde batzuei eta beste eragiten dien bazterketaren ikuspegitik, eta abar.

Immigrazioaren atala sortu berria da. Zeharkako garapena lortu behar dugu antolakuntzaren maila guztietan, langile immigranteen beharrei erantzuna emateko.

Horixe da arlo horrek bultzatu behar duen lanik garrantzitsuena, baina arrakasta izango badu, sindikatuaren egitura guztien konpromisoa behar du, batez ere federazioena eta eskualde-batzordeena. Azkenik, sare zabalagoetan parte hartzeak erakutsi digu ari garela aurrerapausoak ematen sentsibiltatean eta konpromisoan, eta hori ere aipatzeko modukoa da.

Laneko osasunari dagokionez, analisirako eta jarduteko ahalmen gehiago dugu orain, eta hortik abiatuta, hainbat eremutan eta eginkizunetan hobetu dugu: prestakuntzan, sentsibilizazioan, enpresari eta administrazioarenganako exijentzian eta mobilizazioan.

Jabetzen gara ezbehar kopurua estu-estu loturik dagoela lan-baldintza kaskarrekin, azpi-kontratazioarekin, enpresaren tamainarekin eta sektore jakin batzuekin, eraikuntzarekin esaterako. Ohartzen gara, halaber, enpresariak ez dutela legedia betetzen eta administrazioek ere ez dutela gai honetan erantzukizuna beren gain hartzen. Eta, aldi berean, jakitun gara mutuak jarrera produktibista eta erabat merkataritzakoa hartzen ari direla eta, alde horretatik, hutsune eta defizit handia dagoela gaixotasun profesionalei dagokienean.

Arlo honen sendotzeak aukera eman behar digu eragin handiagoa eta zehaztasun handiagoa izateko. Enpresetan aurrerapausoak eman behar ditugu prebentzio gaietan eta segurtasun eta higie-ne neurrietan eta gai horiek ekintza sindikalera bildu behar ditugu. Horretan oinarritu behar du arestian aipatutako eragin eta zehaztasun handiago horrek.

Ingurumenaren arloa da konfederazioan jasotako beste eginkizunetako bat. Horrek ere arreta handiagoa eskatuko digu, ahal den neurrian, ekimenak hartzeko eta gutxienez enpresa kutsatzailenetan erantzun ahal izateko. 300 bat enpresa dira kutsatzaileenak. Betekizun zehatzak eta ingurumenaren aldetik exijentzia neurtuak dituzte beren produkzio-jarduera garatu ahal izateko. Bete-bete heldu behar diogu gaiari, ingurumena eta lanpostuak baitaude jokoan: alegia, enpresa horietako bakoitzean egungo lanpostuei eutsiko bazaie, ingurumen aldetik baldintza jakin batzuk bete beharko dira aurrerantzean.

Hasita gaude lan horretan ere; sistematizatzen ari gara, baina jabetzen gara, aurren-aurreneko lana, lan nekeza batzuetan, langileak sentsibilizatzea dela, jokoan zer dagoen jabe daitezen.

Arloei dagokionez, aipatzekoa da eskualdeetan zabaldu eta finkatu egin behar direla parte-hartze mailak, gai hauek modu sistematikoan landu ahal izateko.

VIII. ZERBITZU JURIDIKOAK ETA GABINETEAK

Trantsizioaren hasieratik, ELAk izaera guztiz sindikala ezarri die zerbitzu juridikoei. Zerbitzu hori erabat doanekoa da afiliatu guztientzat. Eta horretarako talde bat osatu eta integratu du konfederazioan bertan.

1990eko hamarkadaren hasieran, eskualdeka banatu ziren zerbitzu horiek, arreta gertuagokoa eskaini ahal izateko. 50 pertsonak osatzen dute gaur egun zerbitzu hori: 31 abokatuk eta lege eta administrazio arloko beste 19 adituk. Kide horiek guztiek berebiziko lana egiten dute langileak babesteko.

Urtean 5.000 eta 6.000 lan-espediente zabaltzen dira, eta 1.000tik gora administrazio-espediente. 2004. urtearekin alderatuta, espedienteen hazkundea %30etik gorakoa izan da.

ELAra biltzen diren afiliatu berrien %15 berehalako arreta juridikoa jasotzeko afiliatzen da. Horrek agerian uzten du zer-nolako garrantzia duen zerbitzu horrek, baita afiliazioaren hazkundeari begira ere.

ELAko zerbitzu juridikoen konpromisoak eta prestakuntza teknikoak argi erakusten du, hein handi batean, emaitza on hauen zergatia. Zerbitzu juridikoen ahalegin hori are gehiago hobetzeko, Batzorde Eragileak honakoa proposatu nahi du kongresuan: batzordeko kideetako batek ardura oso zabala izatea eginkizun horretan. Aipatu beharra dago ere laster alor honetarako koordinatzaile bat aukeratu dugula.

Gabinetei dagokienez, bai konfederalak bai negozioazio kolektibokoak, ahalegin handia egiten dute, hurrenez hurren, aholkularitza juridikoa eta ekonomikoa emateko. Biak ala biak sostengu garrantzitsua dira Batzorde Eragilearen eta federazioen kudeaketarako. Sostengu hori, gainera, gure antolakunde guztien mesederako da azkenean.

IX. ALIANTZAK ETA NAZIOARTEKO LANKIDETZA

Kongresuen arteko epe honetan Nazioarteko Konfederazio Sindikala (CSI) eratzekeo prozesuan kide aktiboa izan da ELA. CIOSL eta LMK erakundeek bultzatu dute aipatutako konfederazio hori. Ekimen horrek hobeto erantzuten die sindikalismoaren erronkei globalizazio neoliberalaren aurrean, eta espero dugu erakunde berriak biltzeak are eta gehiago indartuko dituela CSIren aukerak.

Europako Sindikatuen Konfederazioari dagokionez (CES), hainbat gairen inguruan izan diren eztabaidak nabarmendu nahi ditugu: Itun Konstituzionala, Bolkestein zuzentaraua, flexiguritatea eta Europako Justizia Auzitegiak askatasun sindikalaren aurka eman dituen epaien ingurukoak, hain zuzen. Gai hauek lekua hartzen ari dira sindikatuen lan-egutegian eta premiazkoa da Europako gizarte ereduaren etengabeko berrazterketa dela-eta, zer jokabide hartu erabakitzea. Aktiboak eta kritikoak izan gara aipatutako lau eztabaida horietan.

Gure mugen jakitun –estaturik gabeko nazio txiki bateko sindikatua gara, finean– iruditzen zaigu Europako sindikalismoaren norabide estrategikoari buruzko eztabaida guri ere badagokigula, eta, ondorioz, eztabaida horretan eragile aktibo izatea erabaki dugu.

Era berean, beste sindikatuarekin alde biko harremanetan sakondu dugu, batez ere Europako eta Amerikako sindikatuarekin. Eta, aldi berean, lankidetzan jardun gara beste erakunde sindikal batzuekin, batik bat Afrikakoekin eta Hego Amerikakoekin. Asiara ere hedatu da gure zeregina.

Asko daukagu ikasteko, eta ondorioak atera behar ditugu guretzat erabilgarri izan daitezkeen esperientzietatik. Eta, gure borondate internazionalistak bultzatuta, ELAren laguntza behar duten proiektuak ere babestu behar ditugu, konpromisotik eta ahalegin militantetik.

Nazioarteko aliantzak ez dira sindikatuen arlora mugatzen: ELAk gizarte-foroetan ere modu aktiboan hartzen du parte. Foro horien zabaltasunaren, orientazioaren eta jardueraren arabera bada, hein handi batean, gaur egun nagusi den eredu globalizatzailearen aurreko indar korrelazioa.

Berriki Europako Foro Soziala izan da Malmö, eta han izan da ELA. Hango parte hartzeak aukera eman digu, hain zuzen, esperientziak eta gogoetak alderatzeko eta etorkizun hurbileko ekin-tzen egutegia zehazten joateko.

X. ORDEZKARITZA SINDIKAL SENDOA ETA FINKATUA

Batzorde Eragilearen txosten honen eranskinean zehaztasun handiagoz aztertzen da ELAren ordezkartza lurraldeka eta sektoreka.

Ordezkaritzaren gehiengo nabarmena daukagu, %40,28, eta oso homogeneoa EAE osoan. Azpimarratzekoa da, era berean, Nafarroan izan dugun etenik gabeko hazkundera; horri esker, ordezkartzaren %21,46 daukagu lurralde horretan.

Emaitza horiek bereziki garrantzitsuak dira guretzat, berresten dutelako langileak aldarrikapenezko proiektu sindikal baten alde daudela; beharginek babesten dutela egitasmo hori.

EAE n gure ordezkartza higitzeko ondo planifikatutako estrategia egon da Eusko Jaurlaritzaren eta patronalaren aldetik; hori izan da hauteskundeetako arrakastaren ifrentzia. Jaurlaritzak modu sistematikoan baliatu ditu gutxiengoan lortutako akordioak eta patronal pribatuek, berriz, urteak dira lurralde-hitzarmenak blokeatzen dituztela, hala nola, metalekoa eta merkataritzakoa.

Nafarroan izandako aurrerapausoek ezarri dituzte erakunde-kontzertazioa deritzanaren mugak, eta, ondorioz, baita aldarrikapenezko sindikalismo baten aukerak ere.

Zalantza gutxi eta konfiantza handia geneukan gure apustuan; izan ere, ziur baino ziurrago gaude ordezkartza eta eredu sindikala estu-estu lotuta daudela. Alde horretatik, lortutako emaitzak pizgarri eta akuilu handia dira.

XI. AFILIAZIOAK HAZTEN JARRAITZEN DU

Afiliazioan hazi egin gara; datuak zehatzago aztertzen dira txosten honen eranskinean. Aurreko Kongresuan 104.695 izatetik 109.318 afiliatu izatera pasa gara: 4.623 lagun gehiago, %4,42ko hazkunde garbia. Emakumeen afiliazioa 35.579tik 40.425eraino hazi da, hots, %13,62ko igoera garbia; guztirako afiliatuekiko pisu erlatiboa hiru puntuz gehitu da, %33,98tik %36,98ra.

Federazioetan Zerbitzuak-en hazkundea izan da nabarmena: 21.805 afiliatu izatetik 24.909 izatera pasa da; 3.104 pertsona gehiago, %14,24ko igoera erlatiboa.

Aktiboen afiliazioan hazkunde garbia 5.863 pertsonakoa izan da: 95.060 izatetik 100.923 izatera pasa gara, %6,17ko batez besteko hazkundea. Aktiboen afiliazioak kopuru osoaren %92,32 ordezkartzen du jada, eta sindikalizazio-tasa %9,64koa da, soldatapean lanean ari den biztanleria osoa aintzat hartuta. Euskal Herrian 1.046.400 pertsona ari dira lanean soldatapean.

Laburbilduz, afiliazio gehiago dugu; aktibo gehiago; emakume gehiago gara eta sartze gero eta handiagoa dugu, oso nabarmena, Zerbitzuak federazioan. Datu horiek erakusten dute zein estu lotuta dauden afiliazio-hazkunde eta ekin-tza sindikala, lan-baldintzen bazterketaren kontra eragiteko.

XII. ONDORIO MODUAN: «EZ IKUSI, EZ IKASI»

Hendaiako behatoki astronomikoan, Anton Abbadia zientzialari lapurtarrak ondoko hitz hauek utzi zituen harrian zizelkatuta: «ez ikusi, ez ikasi». Esapide hori ezin egokiagoa da gure eredu sindikalera ere. Jardun ezean ezin da ikasi; ekintza sindikalaren poderioz lortutako eskarmentutik baino ezin da ondoriorik atera.

Jarduera sindikalak erakusten digu neoliberalismoaren benetako aurpegia zein den; erakusten digu indarrean diren politikek nola eragiten dioten gizartearen gehiengoari eta langileei, bai enpresetan bai administrazioetan.

Erakusten digu nola neoliberalek azpijoko bidez eskubidea beren komenentziara moldatzen duten lan-mundua hondatzeko eta hazten ari diren taldeak baztertzeko.

Lan-errenten pisua murriztea erabaki dute aberastasunean; babes sozialak gutxitzea eta edozein adierazpide sindikal alternatiboren konta borrokatzea, esku-hartze demokratiko eta kolektiboko gune guztiak ixtea, baldin eta aldarrikapen-izaera badute.

Baina baldintza eta egoera zailenetan erantzuna eta borroka berrantola daitekeela ere erakutsi digu jardunak, eta hori egitean, galdu ez, babes soziala irabazi egiten dela ere bai.

Praktikak erakutsi digu zein garrantzitsua den egoera honetan antolakunde sindikal batek autonomia izatea politika eta finantza aldetik bere proposamenak defendatzeko, bai antolakuntza eta bai material aldetik baliabide eta bitarteko nahikoa izateko, eta, hala, sindikatuaren beraren lana eta geroa bideragarria izateko.

Ikasi dugu, halaber, zein den gakoa: militantzia sendotzea eta zabaltzea, lantokietara eta tokian tokiko guneetara eramanez. Eta horretarako funtsezkoa dela prestakuntza, komunikazioa, eztabaida eta parte hartzea.

Pentsamendua eta konpromiso kolektiboa ekintza sindikal, politiko eta sozialarekin konbinatzea, azken-azkenean, aurrera egitea da, arian-arian hurbilduz, agenda propioarekin, agenda horrek bere dituen muga eta akatsekin, baina inolaz ere ez inoren mende, ez dotrina eta ez kudeaketa neoliberalaren mende.

Ikusten dena baino ez da ikasten, eta lanean jarraitu behar dugu, saioak egiten, langileen interesak defendatzeko bide horretan noraino hel gaitzkeen ikusteko eta nola irits gaitzkeen jakiteko.

«Ikusi ezagutzeko, eta ezagutu ekiteko»; izan ere, aurrez ezagutzen denaren gainean baino ezin da eragin eta lan egin; diagnosi zuzena egindako gai eta arazoen gainean.

Eskubide osoa dugu utopian sinisteko, eta are eskubide gehiago dugu, baldin badaiteke, inolako kezkarik gabe, daukaguna ez dugula gustuko esateko, ez lanari dagokionean, ez gizarteari eta politikari dagokionean ere, eta erabaki sendoa dugu elkarrekin militatzeko gauzak aldatze aldera.

Badakigu, jakin, bakarrik ezingo dugula; badakigu beharrezkoa dela sare zabalagoak ehuntzea, sare sindikalak, sozialak eta politikoak; badakigu sindikalismoak badituela bere gune eta molde espezifikoak esku hartzeko.

Hori guztia praktikan, jardunean ikasi dugu, eta jardunean jarraituko dugu are gehiago ikasten. Ikusi, ikasi eta borrokatu langileekin.

